



HKEEren PRENTSA-OHARRA, “DIRU-LAGUNTZAK UDALBILTZARI 2000-2003” TXOSTENARI BURUZKOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, “Diru-laguntzak Udalbiltzari 2000-2003” txostena egin du. HKEEren kide gehienek aldeko botoa eman dute, eta, beraz, txostena onartu egin da.

Udalbiltza sortu zen 1999ko irailean, Bilbon, euskal 1.778 alkatek eta zinegotzik egin zuten bileran, non erabaki baitzuten “Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra-Udalbiltza” eratzea.

Hala ere, fiskalizazio txostenean adierazten denez, erakunde hori ez da erregistratu elkarteen erroldan, eta ez dauka estatuturik; horregatik, mugatua du erregimen juridikoan jarduteko ahalmena. Muga horrek ekarri du Udalbiltzak ekarpen publikorik ez jaso izana.

Ekarpenen onuraduna Udalbide Elkarlan Elkartea da; 1999ko abenduan sortu zen, Elkarteei buruzko Euskal Legearen babesean, eta helburu du lurraldetako udalen arteko erlazio konstruktiboa sustatzea; horretarako, hizkuntza, kultura, kirol, ingurumen, lurralde antolaketa, ekonomia garapen eta gizarte ongizate arloetako ekimenak bultzatuko ditu.

HKEEren lana izan da, batetik, kuantifikatzea Euskal Sektore Publikoak Udalbideri eman dizkion diru-laguntzak; bestetik, diru-laguntza horiek emateko eta ordaintzeko zein prozedurari jarraitu zaion aztertzea; eta, azkenik, fondoan helburua zein izan den aztertzea (diruz lagundutako jarduerak, eta jarduera horien kostua eta justifikazioa).

Udalbidek, 2000-2003 aldian, jasotako laguntzak izan dira, guztira, 3,2 milioi euro: horietatik 1,4 milioi udalek eman dute, aldundiek, 0,9, eta Eusko Jaurlaritzak, 0,9.

Udalbideren jarduera nagusia izan da beste erakunde batzuk finantzatzea, Udalbideren helburuen esparruko jarduerak egin ditzaten.

HKEEk ez ditu aztertu “Udalbiltza Partzuergoa” elkarteari eman zaizkion laguntzak, izan ere, jarduera etenda dauka, eta agiriak Entzutegi Nazionalaren esku daude.



HKEEren txostenak informazio xehatua eskaintzen du, bai Elkarteari emandako diru-laguntzei buruzkoa, eta bai laguntza horien bidez finantzatutako jardueri buruzkoa ere; horrez gain, horiei buruzko ondorioak ere badakartza.

Ondorio horiek direla-eta, honakoak nabarmendu behar dira:

Udalbideri diru-laguntza emateko 262 hitzarmenetatik 7ren aurkako helegitea aurkeztu da EAeko Justizi Auzitegi Gorenaren aurrean, eta horietatik hirutan epaia eman du auzitegiak, laguntza baliorik gabe utzi duela. Beste hirutan, aurrekontuetan Udalbideri emateko laguntzak sartzearen aurkako epaia eman du. Epaietatik biren aurkako helegitea aurkeztu da Auzitegi Gorenean, eta erabaki gabe daude; gainerakoak epai irmoak dira.

Horrez gain, Auzitegi Gorenak ez ditu erabaki Aldundiek Udalbideri emateko laguntzen aurkako bi helegite, izan ere EAeko Justizi Auzitegi Gorenak ez zituen helegite horiek onartu.

Administrazioak Udalbideri emandako fondoak dira erakunde horrek 2000-2003 aldian egin dituen jardueren kostua baino 260.000 euro gehiago; soberakin hori, 2003ko abenduaren 31n, elkartearen diruzaintzan dago.

Udalbidek jasotako fondoan helburu nagusia da finantzatzea beste erakunde batzuek egin dituzten jarduerak, Udalbideren beraren helburuekin bat datozen jarduerak. Erakunde horietan azaltzen da Udalbiltzak finantzatzen dituela. HKEEk kritikatu egiten du laguntza horietan izan den publizitate eta lehia eza, bai eta Udalbidek, finantzatutako jarduerak direla-eta, egin duen jarraipenean izan diren akatsak ere.

Bestalde, txostenak adierazten duenez, Udalbideri eman zaizkion laguntzetatik aztertutako gehienek falta dute egindako jardueren justifikazioa, izan ere laguntza ematea publizitaterik, lehiarik eta espedienteen edukirik gabe ez ohikoa da, eta horrek justifikazioa eskatzen du.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek emandako diru-laguntzek ez daukate behar den informazio guztia; alegia, falta da beste laguntza batzuen aldi berean jasotzea edo Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketetan egunean egotea. Laguntzei buruzko espedienteetan ere ez da ageri diruz lagundutako jardueren kostuen justifikaziorik.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak direla-eta, fiskalizazio txostenak kritikatzeko du, batetik, aldi berean ez dela beste laguntzarik jaso adierazten duen aitortzea, eta, bestetik, akatsak daudela sinatutako hitzarmenetan aurreikusten diren jarduerak justifikatzerakoan.